Euskalterm

Barra-kodea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Feminismoa eta Berdintasuna **Hiztegia**

# Feminismoa eta Berdintasuna

# Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO

## Feminismoa eta Berdintasuna

# HIZTEGIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac**

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2020ko xxxx |
| Ale-kopurua: | 3.000 ale |
| © argitaraldi honena: | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet: | https://www.euskadi.eus/euskalterm |
| Azala: | Concetta Probanza |
| Inprimaketa: | XXXXXXXXXXXXXXXXXXX |
| ISBN: | XXXXXXXXXXXXXX |
| Lege-gordailua: | XXXXXXXXX |

# HITZAURREA

Hiztegi hau Emakunderekin lankidetzan egin dugu eta, lehenengo aldiz jartzen dugu erabiltzaileen eskura, gaur egun, gure gizartearen garapenerako eta sexuen arteko berdintasun-kultura sustatzeko hain beharrezkoa den terminologia. Urrats garrantzitsua dela uste dugu, hiztegiak *Feminismoaren eta Berdintasunaren* alorreko oinarrizko terminoak eta dagozkien kontzeptuak, definizioak, modu zehatzean eskaintzen dizkigulako. Gainera, definizio horietan indarrean dagoen legeriak ezarritakoa jasotzeaz gain, gizarte-mugimenduetatik sortutakoak eta nazioartean erabilitakoak ere islatu dira, nahiz eta, beti ez den erraza izan horiek guztiak uztartzea definizio bakar bat emate aldera.

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten eguneroko jarduereten.

Adostasunaren eta kontsentsuaren emaitza duzu hiztegia. Izan ere, bertan dagoen terminologia Euskararen Aholku Batzordearen

Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta. Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina baita. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Azkenik, nire esker ona eman nahi diet hiztegi terminologiko hau egiteko izan diren fase guztietan parte hartu duten guzti-guztiei.

*Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 18a*

**Miren Dobaran Urrutia**
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HITZAURREA

Gure herrian Berdintasunaren alorrean lan egiten dugunok askotan izan ditugu zalantzak Feminismoarekin eta Berdintasunarekin zerikusi duten hainbat kontzeptu eta hitz euskarara ekartzeko orduan. Irizpide bateratu batzuen beharra sentitu dugu askotan, adibidez, ingelesezko *empowerment* edo gaztelaniazko *sororidad* bezalako hitzak euskaraz adierazteko. Esku artean duzun *Feminismoa eta Berdintasuna* hiztegi terminologikoak ekarpen handia egiten dio gure hizkuntzaren normalizazioari eta tresna baliagarria da Berdintasunaren inguruan hitz egin edo idatzi nahi duenarentzat.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetza-proiektua da hau Feminismoaren eta Berdintasunaren alorreko oinarrizko terminoak eta dagozkien kontzeptuak, definizioak, modu zehatzean eskaintzen dizkiguna. *Ahalduntzea, ahizpatasuna, kristalezko sabaiak, genero-arrakala…* asko dira Berdintasunaren alorrean egunero erabiltzen ditugun hitzak, hiztegi honetan euskarara ekarriak daudenak.

Elkarlanaren emaitza da hiztegi hau, eta bereziki eskertu eta txalotu nahi dut Elhuyarrekin batera hiztegiaren lehen hazia erein zuten taldeko adituen lana. Berdintasunaren eta Feminismoaren

eremuko lantalde hori Euskal Herriko lurralde desberdinetako emakumeek osatu zuten, euskaran arituak edota adituak, gaiari eremu desberdinetatik heltzen diotenak: erakunde publikoak eta pribatuak, unibertsitatea, komunikabideak, elkarte feministak… Eskerrik asko guztioi zuen ezinbesteko ekarpenarengatik.

Hiztegi terminologiko hau, beste eremuetako hiztegi terminologikoekin egiten den bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan integratuta dago, Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak landu ostean.

Euskara eta Berdintasunarentzat aurrerapauso bat suposatzen du. Espero dut aurrerantzean erreferentzia-gunea izatea adituentzako eta tresna erabilgarria herritarrentzako.

*Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 18a*

**Izaskun Landaida Larizgoitia**
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau Elhuyar Fundazioak egina da Emakunderen eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz. Elhuyar Fundazioak hiztegia garatzeko eta lantzeko aditu-talde batekin kontatu zuen. Hiztegian bertan ikus daitezke aditu-talde horretako partaideen izenak.

Eusko Jaurlaritzak aspaldi abian jarritako terminologiaren lan-plangintzak terminologia-lanen normalizazio-prozesua jasotzen du. Horri jarraituz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Elhuyarrek prestatutako lehenengo bertsioa aztertzeko batzorde teknikoa antolatu zuen. Ondoren, Terminologia Batzordeak aztertu zuen hiztegia, eta, batzordeko kideen eztabaida eta gogoeten ondoren, adostasuna eta kontsentsua lortu eta onespena eman zion hiztegiari. Hortaz, argitalpen hau da adostasun eta kontsentsu horren fruitua.

Hiztegi hau terminologikoa da, beraz, bertan dauden terminoen definizioak terminologikoak dira, hau da, ez dira ez lexikografikoak ez eta entziklopedikoak ere. Hiztegia EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan integratu da (www.euskadi.eus/euskalterm) eta bertan kontsulta daiteke.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako eta onetsitako terminologia-lana zabaltzeko ardatza, eta Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planetan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen da.

Beraz, hauxe da Feminismoaren eta Berdintasunaren eremuko terminologiaren erabiltzaileei Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.

**Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

*(4)* Termino normalizatua/gomendatua
*(3)* Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara
**es** español
**fr** français
**en** English

**Sin.** sinonimoa
**Ik.** ikus

# Normalizazioa

## Batzorde teknikoa

**Itziar Diez de Ulzurrun Sagala**
(Itzultzailea, Nafarroako Gobernua)
**Itxaro Borda Xarriton** (Idazlea)
**Amaia Astobiza Uriarte** (Elhuyar)
Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde de Miguel**
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

## Terminologia Batzordea

**Miren Dobaran Urrutia**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Batzorde-ataleko lehendakaria
**Garbiñe Doval Garcia**, IVAPeko Euskara zuzendariordea, Batzorde-ataleko lehendakariordea
**Josune Zabala Alberdi**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria
**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
**Gotzon Lobera Revilla**, Euskaltzaindiaren ordezkaria
**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria
**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria
**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua
**Alberto Atxabal Rada**, aditua
**Naroa Gorostiaga Barriola**, aditua
**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua
**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua
**Pascual Rekalde Irigoien**, aditua

## ELHUYAR FUNDAZIOAREN ADITU-LANTALDEA

**Amaia Astobiza Uriarte** (Elhuyar Fundazioa)
**Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego** (Elhuyar Fundazioa)
**Aizpea Otaegi Mitxelena** (Elhuyar Fundazioa)
**Irene Arrarats** (Berria)
**Lorea Agirre** (Jakin)
**Mari Luz Esteban** (EHU)
**Miren Artetxe** (EHU)
**Noemí Alangua** (Emakunde)
**Saioa Iraola** (Bilgune Feminista)
**Susana Carramiñana** (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko berdintasun-teknikaria)

Berariazko ekarpenak egin dituzten pertsonak:

**Irati Garcia López de Aguileta** (EHU)
**Jokin Azpiazu Carballo** (EHU)
**Mari Luz Esteban** (EHU)
**Marina Sagastizabal** (EHU)
**Mertxe Larrañaga Sarriegui** (EHU)
**Saioa Iraola** (Bilgune Feminista)

# Eremu-zuhaitza

1. **Berdintasun-politikak**
2. **Feminismoa**
3. **Desberdinkeria**
4. **Indarkeria**
5. **Generoa eta sexua**
6. **Sexualitatea eta ugalketa**
7. **Gizarte-antolaketa eta -harremanak**

# AURKIBIDEA

**Bokabularioa sailka**

1. Berdintasun-politikak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
2. Feminismoa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22
3. Desberdinkeria. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 30
4. Indarkeria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 33
5. Generoa eta sexua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 38
6. Sexualitatea eta ugalketa. . . . . . . . . . . . . . . . . . 42
7. Gizarte-antolaketa eta -harremanak . . . . . . . . . . 45

**Euskarazko aurkibidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 49**

**Gaztelaniazko aurkibidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55**

**Frantsesezko aurkibidea. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 61**

**Ingelesezko aurkibidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 67**

**Erreferentzia bibliografikoak. . . . . . . . . . . . . . . . . 73**

# Bokabularioa sailka

# 01. BERDINTASUN-POLITIKAK

1
**aniztasuna eta diferentzia errespetatze** *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat; horren arabera, botere publikoek sexuen berdintasunerako prozesuan beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte, errespetatu daitezen gizonen eta emakumeen artean biologian, bizi-baldintzetan, jomugetan eta beharrizanetan dauden diferentziak eta aniztasuna, eta emakumeen eta gizonen kolektiboen barruan dauden diferentziak eta aniztasuna.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** respeto a la diversidad y a la diferencia

2
**aukera-berdintasun** *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat; horren bidez bermatu nahi da, batetik, emakumeek eta gizonek berdintasunez erabili ahal izatea eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak eta Zuzenbideak aitortutako gainerako oinarrizko eskubideak, eta, bestetik, berdintasunez kontrolatu eta eskuratu ahal izatea boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** igualdad de oportunidades
**fr** égalité des chances
**en** equal opportunity

**berdintasun**
Ik. emakumeen eta gizonen berdintasun

**berdintasun-plan**
Ik. emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan

3
**berdintasun-teknikari** *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunean aditua den pertsona, ezagutza duena berdintasun-egoeraren diagnostikoa egiteko, alor horretako politikak diseinatu, programatu zein ebaluatzeko eta jarduera horiei guztiei buruzko aholkularitza teknikoa eskaintzeko.
**es** técnica de igualdad; técnico de igualdad

4
**ekintza positibo** *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat; horren arabera, botere publikoek aldi baterako neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexua dela-eta gertatzen diren egitatezko desberdinkeriak ezabatzeko edo murrizteko.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** acción afirmativa; acción positiva
**fr** action positive
**en** affirmative action; positive action

5
**emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasun** *(4)*
Sin. tratu-berdintasun *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat, sexuan oinarritutako diskriminazioa, edozein eratakoa dela ere, debekatzen duena.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** igualdad de trato entre mujeres y hombres; igualdad de trato
**fr** égalité de traitement entre hommes et femmes; égalité de traitement
**en** equal treatment of women and men; equal treatment

6
**emakumeen eta gizonen berdintasun** *(4)*
Sin. genero-berdintasun *(4)*; berdintasun *(4)*
Emakumeak eta gizonak berdinak izatea, eskubideei, erantzukizunei eta aukerei dagokienez.
**es** igualdad de mujeres y hombres; igualdad entre mujeres y hombres; igualdad de género; igualdad
**fr** égalité des femmes et des hommes; égalité entre les femmes et les hommes; égalité des genres; égalité
**en** equality between women and men; equality of women and men; gender equality; equality

7
**emakumeen eta gizonen berdintasun-diagnostiko** *(4)*
Esparru (lurralde, erakunde, enpresa...) jakin bateko emakumeen eta gizonen unean uneko berdintasun-egoerari buruzko diagnostikoa, berdintasun-plan bat egin aurretik esku hartzeko premia handiena duten alorrak detektatzeko egiten dena.
**es** diagnóstico de igualdad
**en** gender equality diagnostic

8
**emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan** *(4)*
Sin. genero-berdintasun plan *(4)*; berdintasun-plan *(4)*
Gizarte-bizitzaren esparru guztietan emakumeen parte-hartze aktiboa lortzea eta sexu/generoak eragindako diskriminazioa ezabatzea helburu duen plana, administrazio eta erakunde publikoetan nahiz enpresa pribatuetan aplikatzekoa.
**es** plan para la igualdad de mujeres y hombres; plan de igualdad; plan para la igualdad
**fr** plan d'égalité femmes-hommes; plan d'égalité des femmes et des hommes
**en** gender equality scheme

9
**emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatu** *(4)*
Sin. ordezkaritza orekatu *(4)*; genero-parekotasun *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat; horren arabera, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege-ondorioetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek gutxienez %40ko ordezkaritza izatea.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** representación equilibrada de mujeres y hombres; paridad de género
**fr** représentation équilibrée des femmes et des hommes; parité des sexes
**en** balanced representation of women and men; gender-balanced representation; gender parity

10
**Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea** *(4)*
Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena, bai eta gizartea sentsibilizatzen duena ere, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez.
**es** Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer

**erantzukizun partekatu**
Ik. erantzunkidetasun

11
**erantzunkidetasun** *(4)*
Sin. erantzukizun partekatu *(4)*
Familiako edo komunitateko pertsonen behar fisiko, psikiko eta emozionalak betetzeko ardura pertsona baten baino gehiagoren artean partekatzea, gizonen eta emakumeen artean modu parekidean banatuta.
**es** corresponsabilidad
**fr** partage des responsabilités familiales; partage équitable des responsabilités familiales
**en** equal sharing of domestic responsibilities

**familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egite**
Ik. kontziliazio

12
**genero-analisi** *(4)*
Sin. generoaren araberako azterketa *(4)*
Programek, proiektuek, politikek eta legeek emakumeengan eta gizonengan duten eragin berezituari behatzeko modu sistematikoa. Analisia egiteko, bi informazio-iturri nagusi erabiltzen dira: batetik, sexuaren arabera bereizitako datuak; bestetik, azterketan jasotako biztanleriari buruzko informazioa, betiere generoaren ikuspegitik interesgarria izan daitekeena.
**es** análisis de género
**fr** analyse sexospécifique
**en** gender analysis

**genero-berdintasun**
Ik. emakumeen eta gizonen berdintasun

**genero-berdintasun plan**
Ik. emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan

13
**genero-ikuspegi** *(4)*
Sin. ikuspegi feminista *(4)*
Gizarte, kultura, ekonomia edo politikarekin zerikusia duten fenomenoak aztertu, zehaztu edo garatzeko modua, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak aintzat hartzen dituena.
**es** perspectiva de género; perspectiva feminista
**fr** perspective de genre; perspective féministe
**en** gender perspective; feminist perspective

14
**genero-ikuspegiaren integrazio** *(4)*
Sin. genero-mainstreaming *(4)*; genero-zeharkakotasun *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat; horren arabera, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratu behar dira. Horretarako, politika eta ekintza guztietan, eta maila eta fase guztietan, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna bultzatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatu behar dira.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** integración de la perspectiva de género; mainstreaming de género; transversalización de género
**fr** intégration transversale du genre
**en** gender mainstreaming

**genero-mainstreaming**
Ik. genero-ikuspegiaren integrazio

**genero-parekotasun**
Ik. emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatu

**genero-zeharkakotasun**
Ik. genero-ikuspegiaren integrazio

**generoaren araberako azterketa**
Ik. genero-analisi

15
**hezkidetza** *(4)*
Sin. kohezkuntza *(3)*
Esku-hartze hezitzailea, helburu duena, batetik, desagerraraztea eredu heteropatriarkalaren ondorio diren eta sexu/generoan oinarrituta dauden bereizkeriak eta indarkeria sexista, eta, bestetik, ikasleak genero-berdintasunean heztea, pertsona guztien gaitasun zein banakotasunak aintzat hartuta.
**es** coeducación
**fr** coéducation
**en** coeducation

**ikuspegi feminista**
Ik. genero-ikuspegi

**kohezkuntza**
Ik. hezkidetza

16

**kontziliazio** *(4)*

Sin. familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egite *(4)*

Politika-eredu bat, helburu duena orekatzea gizonek eta emakumeek familiako bizitzan eta lan-munduan duten parte-hartzea eta, oro har, herritar ororen bizitza pertsonala eta lan-bizitza.

**es** conciliación; conciliación de la vida laboral, familiar y personal

**fr** conciliation travail-famille et vie personnelle

**en** balance between work, family and personal life; conciliation between work, family and personal life

17

**Nafarroako Berdintasunerako Institutua** *(4)*

Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoa, eskumen hauek dituena: Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak koordinatzea eta kudeatzea; emakumeen aurkako indarkeriaren edo genero-indarkeriaren aurkako neurri integralak koordinatzea eta kudeatzea, eta LGTBI+ pertsonen gizarte-berdintasunerako politikak koordinatzea eta kudeatzea.

**es** Instituto Navarro para la Igualdad

**ordezkaritza orekatu**

Ik. emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatu

18

**sexu-erasoen aurkako protokolo** *(4)*

Sexu-eraso baten aurrean izan beharreko jokabidea arautzen duen dokumentua, horretarako adostutako irizpideak eta jarraibideak jasotzen dituena. Protokoloak hiru helburu nagusi ditu: laguntza eta babesa eskaintzea erasoa izan duen pertsonari eta haren senide eta gertukoei; erasoa izan duen pertsona artatzeko jardueretan parte hartuko duten zerbitzu eta erakundeak koordinatzea (gizarte-zerbitzuak, udaltzainak, polizia, osasun-zerbitzuak), eta zehaztea nola jokatu behar duten gizarte-eragileek eta erakunde publiko zein pribatuek erasoa publikoki gaitzesteko.

**es** protocolo contra las agresiones sexuales

**fr** protocole contre les agressions sexuelles

**en** sexual assault protocol

19

**sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerrarazte** *(4)*

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduketa gidatzen duten printzipioetako bat; horren arabera, botere publikoek bultzatu behar dute sexuaren araberako rol sozial eta estereotipoak desagerraraztea, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren oinarri direlako eta emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura esleitzen dizkietelako, balorazio eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina emanez.

OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

**es** eliminación de roles y estereotipos en función del sexo

**tratu-berdintasun**

Ik. emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasun

## 02. FEMINISMOA

**ahalduntze**
Ik. emakumeen ahalduntze

**ahalduntze-eskola**
Ik. emakumeen ahalduntze-eskola

20
**ahizpatasun** *(4)*
Sin. sororitate *(4)*
Emakumeen arteko elkartasuna, emakumeak bultzatzen dituena beste emakume batzuekin harreman positiboak izatera eta haiekin aliantza existentzial eta politikoak sortu eta garatzera, ekintza zehatzen bidez zapalkuntza-molde guztiak gizartetik ezabatzearen alde lan egiteko eta elkarri lagunduta emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa lortzeko.
**es** sororidad
**fr** sororité
**en** sisterhood; sorority

21
**androzentrismo** *(4)*
Gizona ardatz duen pentsaera eta jokabidea; erdigunean jartzen du, bizitzaren alderdi guztietan, gizonekin eta maskulinitatearekin lotutako oro, bazterrean eta ikusezin utzita emakumeak eta haien esperientziak.
**es** androcentrismo
**fr** androcentrisme
**en** androcentrism

22
**autodefentsa feminista** *(4)*
Ahalduntze indibidual edo kolektiborako estrategia, talde-saioetan eta metodologia bati jarraikiz lantzen dena eta helburu duena emakumeen kontrako indarkeria agerian jartzea eta hari aurre egiteko bideak eraiki eta urratzea.
**es** autodefensa feminista
**fr** autodéfense féministe; self défense féministe
**en** feminist self-defence; feminist self-defense

23
**berdintasunaren feminismo** *(4)*
Feminismoaren ildo teorikoa, aldarrikatzen duena, besteak beste, emakumeek gizonen eskubide eta aukera berak izan behar dituztela. Helburu horiek lortzeko, korronte honen ustez ezinbestekoa da berdintasun formala edo legezkoa bermatzeaz gain kontratu sozial berri bat ezartzea.
**es** feminismo de la igualdad
**fr** féminisme de l'égalité
**en** equality feminism

24
**bizitzaren jasangarritasun** *(4)*
Pertsonak, Lur planeta eta bizitzaren prozesu naturalak erdigunean jartzen dituen oinarri teorikoa, bestelako eredu ekonomiko eta sozial bat garatzeko beharra aldarrikatzen duena, oinarritzat harturik gizakiak elkarren mendeko direla. Hurrengo belaunaldiek beren beharrak asetzeko eta eskubideak erabiltzeko aukera izango dutela segurtatzea du helburu.
**es** sostenibilidad de la vida
**fr** durabilité de la vie
**en** sustainability of life

25
**diferentziaren feminismo** *(4)*
Feminismoaren ildo teorikoa, emakumeen eta gizonen arteko diferentzia sexualak aintzat hartzen dituena. Diferentzia hitza erabiltzen dute diferenteak izanik eskubide eta aukera berdinak izan behar dituztela adierazteko; berdintasunaren kontrakoa desberdinkeria litzateke, ez diferentzia; izan ere, emakumeen askapenerako eredu sozial androzentrikoa gainditu beharra aldarrikatzen dute, ez emakumeak gizonen berdinak izatea.
**es** feminismo de la diferencia; feminismo diferencialista
**fr** féminisme de la différence; féminisme différentialiste
**en** difference feminism

**EHBF**
Ik. Euskal Herriko Bilgune Feminista

26
**ekofeminismo** *(4)*
Ekologia eta feminismoa uztartzen dituen teoria soziala eta praktika politikoa, oinarrian duena ingurumenaren hondamendia eta emakumeen menderakuntza sistema patriarkalaren ondorio direla.
**es** ecofeminismo
**fr** écoféminisme
**en** ecofeminism

27
**ekonomia feminista** *(4)*
Eredu sozioekonomiko patriarkal androzentrikoaren alternatiba gisa genero-ikuspegia integratzen duen teoria eta praktika ekonomikoa; erdigunean jartzen ditu bizitza iraunarazten duten prozesuak, oro har emakumeek egindakoak, ordaindugabeak eta ikusezinak, nahiz eta gizarte-sistemaren goi-antolakuntzaren oinarri ezinbesteko diren.
**es** economía feminista
**fr** économie féministe
**en** feminist economics

**elkarren mendekotasun**
Ik. interdependentzia

28
**emakumeen ahalduntze** *(4)*
Sin. ahalduntze *(4)*
Emakumeen prozesu indibidual eta kolektiboa; horren bidez, genero-diskriminaziozko testuinguru batean, beren ahalmenak, gaitasunak, estrategiak eta protagonismoa garatzen eta indartzen dituzte, bizitza pertsonal nahiz sozialaren alderdi guztietan modu autonomoan jokatu ahal izateko, berdintasuna lortzeko baliabideak (materialak, psikologikoak, intelektualak eta ideologikoak) eskuratzeko, erabakiak hartzeko eta aitorpena jasotzeko.
**es** empoderamiento de las mujeres; empoderamiento
**fr** autonomisation des femmes; autonomisation
**en** women's empowerment; empowerment

29
**emakumeen ahalduntze-eskola** *(4)*
Sin. ahalduntze-eskola *(4)*
Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa eta, oro har, ahalduntze-prozesua sustatzea helburu duen eskola, xede hori lortzeko askotariko hausnarketa-, eztabaida- eta ikasketa-ekintzak eskaintzen dituena, hala nola ikastaroak, lantegiak, mintegiak, hitzaldiak eta abar.
**es** escuela de empoderamiento
**fr** atelier d'autonomisation
**en** women's empowerment workshop

**emakumeen boto-eskubide**
Ik. emakumeen sufragio aktibo

30
**emakumeen emantzipazio** *(4)*
Prozesu historikoa, helburu duena, batetik, aldarrikatzea emakumeek berdintasuna lortu behar dutela tradizionalki ukatuak izan dituzten bizitzaren esparru guztietan (legeetan, politikan, lan-munduan, gizartean, familian, maila pertsonalean) eta, bestetik, askatzea heteropatriarkatuak haien gainean ezarritako zapalkuntzatik.
**es** emancipación de las mujeres
**fr** émancipation des femmes
**en** emancipation of women; women's emancipation

31
**emakumeen etxe** *(4)*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten zerbitzu guztiak elkartzen dituen espazio fisikoa, emakumeen ahalduntze indibidual zein kolektiboa bultzatzeko beharrezkoak diren askotariko baliabideak biltzen dituena. Zerbitzuen artean, besteak beste, aholkularitza legal, juridiko eta psikologikoa, osasunaren eta sexualitatearen alorreko informazio eta aholkularitza, prestakuntza, ikastaroak eta hitzaldiak eskain daitezke, eta baliabideen artean, berriz, elkarlanerako espazioa. Halaber, "emakumeen etxe" deritzo gune fisiko hori helburu izanik urratsez urrats biltzen eta eratzen doazen zerbitzu eta baliabideen multzoari, hau da, azken helburua lortzeko prozesuari.
**es** casa de las mujeres

32
**emakumeen ikusgaitasun** *(4)*
Sin. ikusgaitasun *(4)*
Emakumeen bizipenak eta emakumeek iraganean zein gaur egun gizateria osoari egindako ekarpenak argitara emateko prozesua.
**es** visibilización de las mujeres; visibilización
**fr** visibilité des femmes; visibilité
**en** women's visibility; visibility

33
**Emakumeen Nazioarteko Eguna** *(4)*
Emakumeen eskubideen aldeko borroka gogoratzeko eta eskubide horiek aldarrikatzeko eguna. Martxoaren 8a da.
**es** Día Internacional de la Mujer
**fr** Journée internationale des femmes
**en** International Women's Day

34
**emakumeen sufragio aktibo** *(4)*
Sin. emakumeen boto-eskubide *(4)*
Emakumeen eskubide politiko eta konstituzionala, hautatzailea izateko gaitasunean datzana; gaitasun horrek lotura du adin-nagusitasunarekin eta nazionalitatearekin, eta eskubidea galtzea dakarten lege-egoeretako batean ere ez egotearekin. Eskubide hori egikaritzeko, norberak hautesle-erroldan izena emanda egon behar du.
**es** derecho a voto de las mujeres; derecho de voto de las mujeres; derecho de sufragio activo femenino

35
**emakumeen sufragio pasibo** *(4)*
Emakumeen eskubide politiko eta konstituzionala, hautatua izateko gaitasunean datzana; gaitasun horrek lotura du adin-nagusitasunarekin eta nazionalitatearekin, eta eskubidea galtzea dakarten lege-egoeretako batean ere ez egotearekin. Eskubide hori egikaritzeko, norberak hautesle-erroldan izena emanda egon behar du.
**es** derecho de sufragio pasivo femenino

36
**Euskal Herriko Bilgune Feminista** *(4)*
Sin. EHBF *(4)*
Euskal Herri mailako erakunde feminista eta abertzalea, 2002an sortua, euskal feminismoaren eta euskal feministen oinordekoa, esparru ugaritako emakume askotarikoen hausnarketa abiapuntu duena. Klase-zapalkuntzaren, nazio/kultura zapalkuntzaren eta sexu/genero zapalkuntzaren aitortzatik abiatuz aztertzen du errealitatea, eta zapalkuntza horien intersekzionalitatean jarduten du, zapalkuntza-sistema orotatik askatzearen eta Euskal Herri burujabe eta feminista baten aldeko borrokan.
**es** Euskal Herriko Bilgune Feminista

37
**feminismo** *(4)*
Emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen duten teoria sozial eta praktika politikoen multzoa. Oro har, hauek dira feminismoaren ardatz nagusiak: emakumeen askapena; emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria salatzea; eta gizarte berri bat eraikitzea, genero-roletan oinarritu beharrean pertsonen arteko harreman parekideetan oinarrituko dena.
**es** feminismo
**fr** féminisme
**en** feminism

38
**feminismo abertzale** *(4)*
Euskal Herriko korronte feminista, 1970eko hamarkadan sortua, nazioa eta gizartea askatzeko borroka eduki ez-patriarkalez hornitzea helburu duena.
**es** feminismo abertzale

39
**feminismo deskolonial** *(4)*
Feminismoaren korrontea, Latinoamerikan sortua, sexu/generoa, klasea eta arraza oinarri dituen intersekzioari garrantzi gorena ematen diona; kolonialismoak eta neokolonialismoak ezarritako instituzio eta kategoria kulturalekin lotzen du, eta zalantzan jartzen du Mendebaldetik mundu osora zabaldu ohi den feminismo unibertsalista eta eurozentriko edo anglozentrikoa.
**es** feminismo descolonial
**fr** féminisme décolonial
**en** decolonial feminism

40
**feminismo erradikal** *(4)*
Gizarte-desberdinkerien oinarrian patriarkatua dagoela aldarrikatzen duen feminismoaren korrontea. Feminismo liberalaren indibidualismoaren eta berdintasun formalaren aurrean, sexismoaren errora jo eta menderakuntza guztien oinarrian sistema patriarkala dagoela aldarrikatzen du.
**es** feminismo radical
**fr** féminisme radical
**en** radical feminism

41
**feminismo instituzional** *(4)*
Emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorraren alde lan egiten duten instituzio publikoen politiken multzoa.
**es** feminismo institucional
**fr** féminisme institutionnel
**en** institutional feminism

42
**feminismo liberal** *(4)*
Teoria feministaren adar indibidualista, emakumeek beren ekintza eta erabakien bidez berdintasunari eusteko duten gaitasunean zentratua. Feminista liberalek argudiatzen dute gizartean uste faltsua dagoela (emakumeak, berez, gizonak baino gutxiago direla intelektualki eta fisikoki) eta horren ondorioz emakumeak diskriminatzeko joera dagoela testuinguru akademikoan eta lan-merkatuan. Adar honetako feministen ustez, emakumeen mendekotasuna ohituren eta legeen murrizketetan oinarritzen da, eta horrek zapaldu eta oztopatu egiten ditu haien sarrera eta arrakasta esparru publikoan. Beraz, haien borroka erreforma politiko eta legalaren bidez sexuen arteko berdintasuna lortzea da.
**es** feminismo liberal
**fr** féminisme libéral
**en** liberal feminism

43
**feminismoaren olatu** *(4)*
Feminismoaren historian bereizi ohi diren hiru aldi edo mugimenduetako bakoitza. Lehen olatua XIX. mendearen bukaeran sortu, eta XX. mendearen hasieran garatu zen, eta, batik bat, emakumeentzako eskubide legal berdinak erreibindikatu zituen, bereziki emakumeen sufragioa. Bigarren olatua 1960ko hamarkadan sortu zen, eta patriarkatuaren aurkako diskurtsoa eta gizarte patriarkaletan emakumeek gizartean, familian, ugalketan eta sexualitatean zuten rolen salaketa izan zituen oinarri. Hirugarren olatua 1990eko hamarkadan sortu zen, eta feminitatearen definizio orokor eta bakarraren ikuspuntua baztertu eta heteronormatibitatearen aurka emakumeen identitate-aniztasuna aldarrikatu zuen, arrazari, etniari, klaseari, erlijioari eta sexualitateari dagokienez.
**es** ola del feminismo
**fr** vague du féminisme
**en** wave of feminism

44
**feminista** *(4)*
Gaur egungo gizarte-antolamendu heteropatriarkalarekin bat ez datorren pertsona, agerian jartzen duena antolamendu horren ondorioz emakumeek eta beste kolektibo batzuek jasaten duten desberdinkeria, eta ahalegintzen dena eraldaketa sozialaren bidez patriarkatua suntsitzen, emakumeen eta beste kolektibo batzuen zapalkuntzari aurre egiten, eta emakumeen eta beste kolektibo horien askapena lortzen.
**es** feminista
**fr** féministe
**en** feminist

**ikusgaitasun**
Ik. emakumeen ikusgaitasun

45
**interdependentzia** *(4)*
Sin. elkarren mendekotasun *(3)*
Pertsona guztiek bizitzan zehar beren behar biologiko nahiz emozionalak betetzeko beste pertsona batzuen beharra izatea.
**es** interdependencia
**fr** interdépendance
**en** interdependence

46
**intersekzionalitate** *(4)*
Kategoria sozial eta kulturalek modu askotan eta aldi berean elkarri eragiten diotela azaltzen duen teoria. Kategoria horien artean sartzen dira, besteak beste, generoa, hizkuntza, klasea, arauz kanpoko funtzionaltasunak, sexu-orientazioa, erlijioa, etnia, kasta, adina, nazionalitatea eta beste identitate-ezaugarri batzuk.
**es** interseccionalidad
**fr** intersectionnalité
**en** intersectionality

47
**lesbianismo politiko** *(4)*
Feminismoaren korrontea, aldarrikatzen duena sexu-orientazioa aukeratu egiten dela eta lesbianismoa, aukera politiko eta feminista gisa, heterosexualitatearen alternatiba positiboa dela.
**es** lesbianismo político
**fr** lesbianisme politique
**en** political lesbianism

48
**LGTB mugimendu** *(4)*
Lesbiana, gay, transgenero eta bisexualen mugimendu sozial eta politikoa, kolektibo horiek historikoki jasan duten bazterkeriari amaiera eman eta gizarte- eta eskubide-berdintasuna lortu nahi duena.
OHARRA: Azken urteetan, beste kolektibo batzuk eta, beraz, beste letra batzuk gehitu zaizkio mugimenduari, genero- eta sexualitate-aukera oro barne hartu nahian, hala nola Q (queer) eta I (intersexual), LGTBIQ sigla osatuz; batzuetan, LGTB+ sigla ere erabiltzen da, bai eta beste sigla luzeago batzuk ere, nahiz eta azken horiek hain hedatuak egon ez.
**es** movimiento LGBT
**fr** mouvement LGBT
**en** LGBT movement

49
**maitasun erromantiko** *(4)*
Bi pertsonaren arteko erakarpen bizia, gizarte guztietan gertatzen dena eta berekin dakarrena pertsona maitatuaren idealizazio eta erotizazioa, harekin harreman intimo bat izateko nahia eta harreman horrek denboran irauteko guraria. Horrez gain, maitasun erromantikoa maitasun-eredu kultural bat ere bada, idealizazioari, misterioari, emozioen asalduari eta sexu-grinari garrantzi handia emateko joera duena. Maitasun idealaren eredu hori Mendebaldeko gizarteetan sortu da, azken mendeetan, eta, feminismoaren ikuspegitik, eragin handia du emakumeen menderakuntzan.
**es** amor romántico
**fr** amour romantique
**en** romantic love

50
**mugimendu feminista** *(4)*
Mugimendu sozial, politiko, filosofiko eta aldarrikatzailea, askotariko emakume-talde, kolektibo, plataforma eta norbanakoek osatua. Emakumeen askatasunaren alde eta emakumeak zapaltzen dituen gizarte-sistema patriarkalaren aurka borrokatzen da.
**es** movimiento feminista
**fr** mouvement féministe
**en** feminist movement

51
**nazioarteko greba feminista** *(4)*
Emakumeen nazioarteko greba, batez ere Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotzen dena.
**es** huelga feminista internacional
**fr** grève féministe internationale
**en** international feminist strike

52
**poligamia** *(4)*
Aldi berean emazte edo senar bat baino gehiago izatea onartzen duen sistema soziala, hau da, onartzen duena gizon batek emazte bat baino gehiago izatea (poliginia) edo emakume batek senar bat baino gehiago izatea (poliandria).
**es** poligamia
**fr** polygamie
**en** polygamy

53
**queer teoria** *(4)*
Genero- eta sexu-bitartasuna zalantzan jartzen duen teoria, esaten duena sexu-identitatea, genero-identitatea eta sexu-orientazioa ez daudela aurrez biologikoki determinaturik, baizik eta kulturalki eta sozialki eraikiak direla.
**es** teoría queer
**fr** théorie queer
**en** queer theory

54
**sexu-askapen** *(4)*
Sin. sexu-iraultza *(4)*
XX. mendearen bigarren erdian Mendebaldeko hainbat herrialdetan sortutako aldaketa soziala, sexuaren gaineko morala, portaera eta sexu-harremanak ulertzeko kode tradizionalak irauli zituena.
**es** liberación sexual; revolución sexual
**fr** libération sexuelle; révolution sexuelle
**en** sexual liberation; sexual revolution

**sexu-iraultza**
Ik. sexu-askapen

**sororitate**
Ik. ahizpatasun

55
**transfeminismo** *(4)*
Feminismoaren korrontea, emakumeez gain heteropatriarkatuak zapaldutako pertsona oro aintzat hartzen dituena.
**es** transfeminismo
**fr** transféminisme
**en** trans feminism; transfeminism

56
**ziberfeminismo** *(4)*
Ziberespazioaren, Interneten eta teknologia berrien bidez aktibismo feminista garatzen duen mugimendua. OHARRA: Zaila da definizio zehatza ematea, ziberfeministek uko egiten diotelako beren burua definizio zurrun batean kokatzeari.
**es** ciberfeminismo
**fr** cyberféminisme
**en** cyberfeminism

# 03. DESBERDINKERIA

**bereizkeria**
Ik. sexuagatiko diskriminazio

**bereizkeria anizkoitz**
Ik. diskriminazio anizkoitz

57
**biologizismo** *(4)*
Fenomeno psikologiko, sozial eta kulturalak azaltzerakoan, oinarri biologikoa duten faktoreak neurriz kanpo balioestea, halako moduz non, zenbaitetan, faktore horiek besterik ez baitira aintzat hartzen, inguruneko faktoreak eta hezkuntzaren eta kulturaren eragina alde batera utzita.
**es** biologicismo
**fr** biologisme
**en** biologicism

**diskriminazio**
Ik. sexuagatiko diskriminazio

58
**diskriminazio anizkoitz** *(4)*
Sin. bereizkeria anizkoitz *(3)*
Emakume batek edo emakume-talde batek sexu/genero diskriminazioaz gainera beste diskriminazio bat edo gehiago jasatea, arrazoi hauek direla medio: arraza, klasea, etnia, hizkuntza, sexu-joera, erlijioa, nazionalitatea, dibertsitate funtzionala edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.
**es** discriminación múltiple
**fr** discrimination multiple
**en** multiple discrimination

59
**emakumeen eta gizonen desberdinkeria** *(4)*
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza, eskubideei, erantzukizunei eta aukerei dagokienez.
**es** desigualdad entre mujeres y hombres
**fr** inégalité entre les femmes et les hommes
**en** inequality between women and men

60
**genero-arrakala** *(4)*
Aldez aurretik zehazturiko aldagai bati dagokionez, emakumeen eta gizonen indizeen arteko aldea, sistema patriarkalak emakumeen eta gizonen artean ezarritako hierarkizazioan oinarritua.
**es** brecha de género
**fr** fossé des genres
**en** gender gap

61
**hizkera inklusibo** *(4)*
Pertsona edo gizarte-talde batzuekiko aurreiritzi edo diskriminazioen adierazpide diren formulazioak saihesten dituen hizkera, hala nola generoari, sexu-orientazioari, desgaitasunari, adinari, jatorriari, erlijioari edo sinesmenei lotutakoa.
**es** lenguaje inclusivo
**fr** langage inclusif
**en** inclusive language

62
**hizkuntzaren erabilera ez-sexista** *(4)*
Emakumeak baztertu, gutxietsi edo iraintzen ez dituen hizkuntzaren erabilera, ahozkoa zein idatzizkoa. Adierazpide diskriminatzaileak baztertzen ditu –sexu/generoaren arabera gizarteak emakumeei eta gizonei esleitutako ezaugarri, gaitasun eta roletan oinarritutakoak–; adibidez, emakumeak ikusezin bilakatzen dituen maskulino orokortzailea saihesten du, baita gizonen erreferentzialtasuna ere.
**es** uso no sexista del lenguaje
**fr** usage non-sexiste de la langue
**en** non-sexist use of language

63
**homofobia** *(4)*
Sexu/genero bereko pertsonak desiratzen dituzten edo haiekin sexu-jarduerak dauzkaten pertsonen aurkako jarrera eta jokabideen multzoa, izan pertsonalak, moralak, ideologikoak, politikoak edo erlijiosoak. Adiera zabalean, bisexual eta transexualen aurkako jarrera eta jokabideak ere biltzen ditu.
**es** homofobia
**fr** homophobie
**en** homophobia

64
**kosifikazio** *(4)*
Pertsona bat sexu-desiraren objektu huts gisa ikustea eta halakotzat tratatzea, ezaugarri sexualak eta edertasun fisikoa nortasunaren gainerako ezaugarrietatik eta pertsonaren izatetik bereizirik, eta atributuak beste pertsona baten plazer-iturri izatera murrizturik.
**es** cosificación
**fr** chosification
**en** objectification

65
**lesbofobia** *(4)*
Lesbianen aurkako jarrera eta jokabide pertsonal, moral, ideologiko, politiko eta erlijiosoen multzoa.
**es** lesbofobia
**fr** lesbophobie
**en** lesbophobia

66
**lodifobia** *(4)*
Edertasunaren kanonetara egokitzen ez diren gorputz lodien aurkako gorrotoa adierazten duen jarrera eta jokabide soziopolitikoa, pertsona lodiak zapaldu eta diskriminatzen dituena eta bereziki emakumeei eragiten diena. Pertsona horiek lotsarazi, isilarazi eta aldarazteko diseinatutako sistema konplexu eta elkarri lotuetan oinarritzen da.
**es** gordofobia
**fr** grossophobie
**en** fatphobia

67
**misoginia** *(4)*
Emakumeen aurkako gorrotoa, mespretxua edo aurreiritzia. Era askotara agertzen da: gizarte-bazterketa, sexu-bereizkeria, etsaitasuna, androzentrismoa, patriarkatua, gizonen pribilegioa, emakumeen kosifikazioa eta abar.
**es** misoginia
**fr** misogynie
**en** misogyny

68
**publizitate sexista** *(4)*
Genero-rol eta genero-estereotipoetan oinarritutako publizitatea. Genero-rolak gizarteratu eta normal bihurtzen ditu eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu eta hutsaldu egiten ditu.
**es** publicidad sexista
**fr** publicité sexiste
**en** gender advertisement

69
**sexismo** *(4)*
Sexu-rol eta sexu-estereotipoetan edo genero-rol eta genero-estereotipoetan oinarritutako diskriminazioa, nagusiki emakumeen kontrakoa, norbanakoek zein gizartea osatzen duten instituzioek egina.
**es** sexismo
**fr** sexisme
**en** sexism

70
**sexuagatiko diskriminazio** *(4)*
Sin. sexuan oinarritutako diskriminazio *(4)*; diskriminazio *(4)*; bereizkeria *(3)*
Emakumeei eta gizonei tratu desberdina ematea, emakumeei beren eskubideak osoki erabiltzea eragotziz.
**es** discriminación por razón de sexo; discriminación
**fr** discrimination fondée sur le sexe; discrimination
**en** sex-based discrimination; discrimination

71
**sexuagatiko zeharkako diskriminazio** *(4)*
Sin. zeharkako diskriminazio *(4)*
Itxuraz neutroa den neurri edo egintza juridiko, irizpide edo jokabide batek sexu bereko multzo aski handi bati kalteak eragitea, salbu eta neurri, irizpide edo jokabide hori egokia eta beharrezkoa bada eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboen bidez justifika badaiteke.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** discriminación indirecta por razón de sexo

72
**sexuagatiko zuzeneko diskriminazio** *(4)*
Sin. zuzeneko diskriminazio *(4)*
Pertsona bat egoera berean dagoen beste pertsona bat baino txarrago tratatzea sexua dela-eta edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta; esaterako, haurdun dagoelako edo ama delako.
OHARRA: iturria 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
**es** discriminación directa por razón de sexo

**sexuan oinarritutako diskriminazio**
Ik. sexuagatiko diskriminazio

73
**soldata-arrakala** *(4)*
Emakumeek eta gizonek jasotzen duten soldataren arteko aldea, alde batera utzita lanaldia, lan-mota eta lanbide-kategoria.
**es** brecha salarial
**fr** écart de salaire
**en** gender pay gap; pay gap

74
**transfobia** *(4)*
Pertsona transexualen edo transgeneroen kontrako jarrera eta jokabide pertsonal, moral, ideologiko, politiko, sozial eta erlijiosoen multzoa.
**es** transfobia
**fr** transphobie
**en** transphobia

**zeharkako diskriminazio**
Ik. sexuagatiko zeharkako diskriminazio

**zuzeneko diskriminazio**
Ik. sexuagatiko zuzeneko diskriminazio

# 04. INDARKERIA

75
**bortxaketa** *(4)*
Sexu-erasoa: indarkeria edo larderia erabiliz, sexu-organo maskulinoa baginan, uzkian nahiz ahoan sartzea, edota gorputz-adarrak nahiz objektuak lehenengo bi bide horietako batean sartzea.
1. OHARRA: iturria Espainiako Zigor Kodeko 179. artikulua.
2. OHARRA: Espainiako Zigor Kodeak bereizi egiten ditu sexu-erasoa –indarkeria edo larderia erabiliz egiten dena– eta sexu abusua –indarkeria edo larderia erabili gabe egiten dena, nahiz eta adostasunik egon ez. Sexu-erasoa bortxaketatzat jotzeko, ezinbestekoa da indarkeria edo larderia erabiliz egin dela frogatzea, bestela, nahiz eta adostasunik izan ez, sexu-abusutzat jotzen da, adibidez, konorterik gabe dauden pertsonen aurka edo haien buru-nahasteaz abusatuz gauzatzen dena. Kontzeptualizazio hori zaharkitutzat jotzen da feminismoaren ikuspuntutik, ez baitator bat sexu-askatasunerako eskubidearekin, eta adostasun garbia ez dagoenean sexu-erasotzat jotzea aldarrikatzen da.
**es** violación
**fr** viol
**en** rape

76
**emakumeen kontrako indarkeria** *(4)*
Sin. genero-indarkeria *(4)*; indarkeria matxista *(4)*; indarkeria sexista *(4)*
Emakumeek emakume izateagatik jasan dezaketen edozein ekintza, kalte fisiko, sexual edo psikologikoak eragin diezazkiekeenak; ekintza horien artean bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen diren mehatxuak, bortxak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta.
1. OHARRA: 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak, genero-indarkeria bikote baten edo bikote ohi baten harremanaren esparrura mugatzen du, eta ez ditu hartzen nazioarteko erakundeek (Nazio Batuen Erakundea, Europako Kontseilua, Europar Batasuna) emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzen dituzten ekintza guztiak, hala nola lan-eremuko sexu-erasoak, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartuak eta abar.
2. OHARRA: Mugimendu feministak adiera zabalagoan ulertzen du indarkeria matxista: espazio fisiko eta sinboliko guztietan gizonek baliatzen duten edozein indarkeria-mota, baldin eta pertsona hauen kontrakoa bada: gaur egun baliozkotzat jotzen den sexu/genero sistema bitarraren arabera emakumetzat jotzen direnak, sistema hori apurtzen dutenak (intersexualak, transgeneroak, transexualak), heteronormatibitateak ezarritako sexualitate-ereduari jarraitzen ez diotenak (lesbianak eta gayak) eta haur eta gaztetxoak.

**es** violencia contra las mujeres; violencia de género; violencia machista; violencia sexista
**fr** violence contre les femmes; violence liée au genre; VLG; violence machiste; violence sexiste
**en** violence against women; gender violence; gender-based violence

77
**emakumeen mutilazio genital** *(4)*
Emakumeen kanpo-genitalen erresekzioa, hau da, erauzketa partzial edo erabatekoa, bai eta emakumeen organo genitaletan eragindako beste lesio batzuk ere, guztiak ere arrazoi kultural eta erlijiosoengatik eginak.
**es** mutilación genital femenina; MGF
**fr** mutilation génitale féminine; MGF
**en** female genital mutilation; FGM

78
**emakumeen salerosketa** *(4)*
Sin. emakumeen trafiko *(4)*
Emakumeak saldu edo erostea, sexu-esplotaziora bideratzeko, hau da, prostituziorako eta sexu-esklabotasunerako.
**es** comercio de mujeres; trata de mujeres; tráfico de mujeres
**fr** trafic de femmes; traite des femmes
**en** women trafficking

**emakumeen trafiko**
Ik. emakumeen salerosketa

79
**eraso matxista** *(4)*
Espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten den edozein eraso-mota, pertsona hauen aurkakoa: emakumeak, sexu/genero sistema bitarra apurtzen dutenak (intersexualak, transgeneroak, transexualak) eta heteronormatibitateak ezarritako sexualitate-ereduari jarraitzen ez diotenak (lesbianak eta gayak).
**es** agresión machista
**fr** agression machiste

80
**eraso sexista** *(4)*
Espazio fisiko eta sinboliko guztietan emakumeei emakume izate hutsagatik egiten zaien edozein eraso-mota.
**es** agresión sexista
**fr** agression sexiste
**en** sexist assault

81
**etxeko indarkeria** *(4)*
Sin. familia barruko indarkeria *(4)*
Tratu txar fisiko, psikiko, sexual edo bestelako tratu iraingarri oro, pertsona batek bere familiako kide bati edo bizikide duen bati edo gehiagori eragiten diona.
OHARRA: iturria 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa.
**es** maltrato doméstico; violencia doméstica; violencia intrafamiliar
**fr** violence domestique; violence familiale; violence intrafamiliale
**en** domestic violence; family violence

**familia barruko indarkeria**
Ik. etxeko indarkeria

82
**feminizidio** *(4)*
Emakumeen hilketa sistematiko eta berariazkoa, emakumeen aurkako gorrotoan oinarritua; hau da, emakumeak emakume izateagatik erailtzea.
**es** femicidio; feminicidio
